

5. KANALAK

Kanalen bidez, gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea lortzen dugu. Komunikazio-kanalak erabiliko ditugu web orri bat sortzeko. Salmenta-bideak ere izan behar dugu, produktua edo zerbitzua entregatzeko bezeroei entregatzeko harreman-puntu batean. Gure kasuan, denda fisiko bat izan arte Internet bidez saltzean, ez dugu kontaktu-puntu hori izango. Paketen bidez eskuratuko dute eurek aukeratutako helbidera.

Kanalak bezeroarekin harremanetan jartzeko 5 fase daude. Lehenengoa, pertzepzioa da: publizitate bidez, autoentzako batera eramangarriaren buruzko informazioa ematen diogu bezeroei. Ebaluazio metodoa erabiliko dugu ere bai, hau da, erosi aurretik probatzeko aukera emango diegu. Bezeroak produktua erabiliko eta horri buruzko iritzia emango dute 30 eguneko proba baten bidez, produktua nahi duten edo ez erabakitzeko; hala ez bada, dirua itzuliko dugu. Hori eta gero, produktua nahi izanez gero, erosketa emango da webgunearen bidez. Orduan, batera entregatuko dugu bezeroak ezarritako helbidera.

Arazo bat izanez gero, salmenta ondokoa dugu: bezeroari arazo bat edo produktuari buruzko galdera bat dutenean deitzeko kontaktua da. Horretarako, bezeroei arreta emateko telefono zenbaki espezifiko bat edukitzeaz arduratuko gara.

